

Ur kutsatua edango genuke?

Uraren kutsadura jotzen bada Hirugarren Munduko sinbolotzat, airearen kutsadura Lehenengo Munduko sinbolo dela esan liteke. Eta galdetu diot neure buruari non dagoen ezberdintasuna gaixotzen bazara edaten duzun uragatik edo arnasa hartzen duzun aireagatik.

Neuk, alde eder bat aurkitu dut: airearen kasuan, errua gurea da, eta banatua, gainera. Nahiz eta askok industrial-osteko mamuak bilatzen jarraitzen ari diren, gure hirietako airearen kalitate ezak erantzulea dauka: ibilgailu motorduna. Hona hemen benetako *egia deseroso* bat, autoa bihurtu dugun estatus ikurra ukitzen duelako.

Ez dut irakurri behar txosten batean, baina ez soilik txostenen joerak fidagarriak ez direlako, nire hirian egunero usaintzen, ikusten eta *ukitzen* dudalako. Beste leku batera begiratzen buka dezagun. Pozoitzen ari gara, eta geu baino ez gara erantzuleak. Kaleetan auto gutxiago behar dugu. Hainbeste apologia autoaren alde ez da aurrerapena ezta bizi-kalitatea ere; batzuen egoa elikatzeko besterik ez du balio.

Ur kutsatua ez genuke inolaz ere edatea onartuko; zergatik onartzen dugu aire kutsatua arnastea?

Iñaki Diaz de Etura
Berria, 2008ko apirilaren 8a

18. Zein izango litzateke testu honen komunikazio asmoa?

- A. Irakurleak entretenitzea.
- B. Gai baten inguruan iritzia ematea.
- C. Instrukzioak ematea.
- D. Besterik gabe gai baten inguruan informatzea.

19. Eta nori zuzendua dago?

- A. Iñaki Diaz de Eturari.
- B. Hirugarren Mundukoei.
- C. Lehen Mundukoei.
- D. Gu guztioi.

20. Ondorengo esaldietatik zeinek jasotzen du hobekien igorleak testuan defendatzen duen tesia (iritzia edo balorazio nagusia)?

- A. Uraren kutsadura Hirugarren Munduko sinboloa bada airearen kutsadura Lehen Munduaren sinboloa da.
- B. Airearen kutsaduraren errua gurea da, eta horren erantzule ibilgailu motorduna da.
- C. Ur kutsatua ez dugu edaten, ezta aire kutsatua arnastu ere.
- D. Autoaren aldeko apologia ez da aurrerapena, ezta bizi kalitatea ere.

21. Testu honen bigarren paragrafoan dio: “egia deseroso”. Zer esan nahi du horrekin?

- A. Autoa ez dela eroso.
- B. Aire kutsatzea ez dela eroso.
- C. Ibilgailu motordunak direla kutsaduraren erantzule esatea ez dela jendearen gustukoa.
- D. Ibilgailu motordunak deserosoak direla.

22. Testuaren hirugarren paragrafoan ageri da “ukitzen” hitza kurtsibaz idatzia. Zergatik erabili du hizki mota desberdina hitz hori idazteko?

- A. Hizki mota hori gehiago gustatzen zaiolako.
- B. Hizki mota hori hobeto ikusten delako.
- C. Hitz hori nabarmendu nahi duelako.
- D. Huts bat izan da.